



## JOSÉ ANTONIO ARTAMENDI MUGUERZA FUNTSA



### Identifikazioa

<b>Erreferentzia-kodea</b>	ES20030AME_FJAAM
<b>Izenburua</b>	José Antonio Artamendi Muguerza funtsa
<b>Data</b>	1950 / 2003
<b>Deskripzio-maila</b>	01 - Funtsa
<b>Bolumena</b>	6 metro lineal.

### Testuingurua

#### Ekoizlea

José Antonio Artamendi Muguerza

#### Aipamen biografikoa

Jose Antonio Artamendi Muguerza Eibarren jaio zen, 1933ko abuztuaren 25ean, eta Donostian hil zen, 2014 urtean. Filosofia eta Teologia ikasi zuen Valladolidedeko Unibertsitatean, eta, geroago, apaiztu zen, 1958an. 1958-1959 ikasturtean, Angelicum Erromako Unibertsitate Pontifizioan jarraitu zuen ikasten; han, Aristotelesen eta XVIII. eta XIX. mendeetako Alemaniako filosofian sakondu zuen. Maurice Merleau-Pontyren diszipulua izan zen; 1960an Pariseko Institutu Katolikoan matrikulatu zen doktoretza-tesia prestatzeko, Grenet irakasleak zuzenduta: "Essai d'une Phenomenologie de l'Être Humain Dans la prespective de Maurice Merleau-Ponty"; 1963ko maiatzaren 9an defendatu zuen tesia, eta Filosofiako Doktoretza lortu zuen Sorbonan. Urte hartan, eskolak ematen hasi zen Donostiako Elizbarrutiko Apaizgaitegian, eta, geroago, Deustuko Unibertsitatean; azken horretan, Filosofia eta Letren Fakultateko Dekanoa izan zen. Xavier



Zubirirekin lan egin zuen Madrilgo haren Mintegian, eta han "Técnica y civilización" liburua amaitu, eta Doktore izendatu zuten Unibertsitate Complutensean 1974an. Donostiako lehenengo Filosofia-Asteak antolatu zituen; horietan Jose Luis Arangurennek, Fernando Savaterrek, Javier Muguerzak eta Carlos Parisek hartu zuten parte, besteak beste.

Liburu ugari idatzi zituen. 1993an Sabino Arana Fundazioko lehendakari izendatu zuten. Irakaskuntzari dagokionez, Antropologia Filosofikoko, Filosofiaren Historiako, Hizkuntzaren Filosofiako eta Gizarte- eta Kultura-Antropologiako irakasle izan zen Donostiako Apaizgaitegian eta Deustuko Unibertsitatean; azken horretan, Filosofia eta Letren Fakultateko katedratikoa izan zen, eta horretako Dekanoa izan zen Donostiako Kanpusean.

## **Artxiboaren historia**

Dokumentazioa Jose Antonio Artamendiren artxibo pertsonalekoa da, beraren ikasle sasoikoa, apaiz sasoikoa eta unibertsitate-irakasle sasoikoa.

## **Sartzeko era**

Familiak 2014an egindako dohaintza.

## **Edukia eta egitura**

### **Edukia**

Jose Antoni Artamendiren ikasketei eta haren irakasle-karrerari buruzko dokumentazioa da, batez ere: ikasi zituen irakasgaietako apunteak, eskolak prestatzeko oharra, doktoretza-tesirako ikerketak, argitaratutako artikulua eta obrak, eman zituen hitzaldi eta ikastaroetarako zirriborroak, Dekanotzaren kudeaketa eta gutun pertsonalak.

## **Balorazioa, aukeraketa eta ezabaketa**

Bai. Fotokopiak eta bikoiztutako aleak kendu dira.

## **Antolaketa**

Dokumentazioaren inbentarioa eginda dago.

## **Sartzeko eta erabiltzeko baldintzak**

### **Sartzeko baldintzak**

Izaera publikoko artxibo-funtsa. Sarbide librea, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/90 legearen muga edo murrizketekin. Dokumentazioaren zati bati Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta Udalak berak onetsia duen segurtasun-agiria aplikatu behar zaizkio.



## **Erreproduzitzeko baldintzak**

Dokumentuen erreprodukzioa librea da, aipatutako legediak dioen neurrian.

## **Dokumentuetako hizkuntza / idazketa**

Frantsesa/Euskara/Gaztelania/Latina

## **Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak**

Paperezko dokumentazioa.

## **Deskripziorako tresnak**

Inbentario topografikoa.

## **Gehitutako dokumentazioa**

## **Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokapena**

Eibarko Udala

## **Deskripzioaren kontrola**

## **Artxibozainaren oharra**

Yolanda Ruiz Urbón-ek egin du deskripzioa, iturri dokumental zuzenetan eta Eibarko Udal Artxiboan oinarrituta.: José Antonio Artamendi Muguerza funtsa.

## **Arauk**

ISAD(G) arauan partzialki oinarritutako deskripzioa , Udal Artxiboak garatutako jarraibide espezifikoaren arabera.

## **Deskripzioaren eguna**

2016/01/28